

*ERALDAKETA SOZIALA, Arizmendi Arrietaren pentsamenduetariko funtseskoenetakoa dugu. Ardatz nagusia. Ordena sozial berriak dakarkigun erronka guztien eremua. Helburu nagusi hau lortzeko, tresna ekonomikoen beharra dugu eta bereziki, gizakiaren benetako barne erregenerazioa.*

*Ara hemen gogoeta esanguratsuenak:*

*Lankidetzaz da gizakia ordena sozial berri bat osatuko duen prozesu ekonomiko eta sozialean benetan integratzea; kooperatibistek lan munduan justizia gose eta egarri diren guztiekin bat eginik jo behar dute azken helburu horren bila. p432*

*Entitate kooperatiboek aurrerapenari, garapenari eta ordena sozial berri bati lotutako elementuak izan behar dute. p444*

*Elkartasun espiritu ireki batek elikatzen du mugimendu kooperatibista. Helburua urruti eta oso goian dago: mundu mailako erregimen kooperatibista solidarioaren eraikuntza. p434*

*Mugimendu kooperatiboak elkartasun, justizia eta askatasun zuztar sakonak izan behar ditu oinarritzko unitate bakoitzean esaterako, lan komunitateetan konprometitzen direnen gogoan; baina, era berean, plano ekonomiko, finantzario, sozial eta politikoko beste entitate batzuk eraldatu behar ditu, mugimenduaren jatorrizko sentimenduei jarraituz. p489*

*Gure lurreko gizakien eta herrien kontzientzia aktiboaren giza balioen eta balio sozialen inspirazioari erantzunda bizitzeko prozesua, prozesu hedakorra, izan nahi duen esperientzia batek, kontzientzia publiko horren informazioa ematen duten datuak barneratu behar ditu. Eraldaketa bat geroratzeko espediente bat baino gehiago, eraldaketa hori aurreratu eta bizkortuko duen mekanismo bat izan behar da. p256*

*Men egin behar diogu uneko errealitateari, nahiz eta gure indar guztiekin tematuko garen errealitate hori aldatzen, eta horretarako gordeko eta erabiliko ditugu gure indar eta baliabide guztiak. p401*